


Alan Turing

Konputazio modernoaren aita aitortuak, adimen artifizialaren aitzindariak, nazien kodetze makina (Enigma) deskodetzea lortu zuen gizonak, Alan Turingek, eguberri egunean esku-ratu du Elisabet II.aren barkamena, *gross indecency* delituarena, bera hil eta 59 urtera, bera kimikoki irendua izan eta 61 urtera (erreginak tro-nuan daraman denbora berbera). Kontuz, erreginak barkatu, ez barkamena eskatu!

Gizonekin sexu harremanak izateagatik kondenatu zuten. Irentze eta kartzelaren artean aukeratu behar, eta lanean jarraitzen uzten zion

zigorra hautatu zuen, desprestigioan erorita. Aplikatzen zitzaion silogismoa gutun bidez bidali zion lagun bati: «Turingek uste du makinak pentsatzen dutela. Turing gizonekin oheratzen da. Ondorioz, makinak ez dute pentsatzen».

Homosexuaitatea kontrako argumendu bat zen. Bada uste duenik Turingek ez zuela bere buruaz beste egin sagar bat zianuroz pozoituta, erailda izan zela baizik, homosexuala traidore izateko susmagarria baitzen berez, errosiar espioi batekin ohera zitekeen eta. Nahiko nuke hau iraganeko kontua dela esan ahal izatea, baina Errusia berako kasua, Bartzelonan atzeman dituzten Pilla pilla taldeko kideak. Indezentziaren susmo txarrak bizirik dirau.



Jira
Angel Erro

Tabua

Lagun batek eskatu dit kontatzeko, lotoi eta arren, atzo goiza ez zela izan festa etxe guztietan; arbola azpiko oparien zabaltzea ez zela izan algarra. Ez dagoela urrutira joan beharrik, ez geografikoki ez gainerako aurreiritzietan; euren etxea, adibidez, iragarritako zapuzte baten kronika izan zela. Hamaika urte dituela semeak, eta seko goibeldu zela paper dirdiratsuk urratu eta *smartphone*-aren ordeztandala eta joko didaktiko bat agertu zitzaizkionean. Gaztigatu ziotela aldeztu aurretik, ez itxaroteko telefono miraritsurik, baina, agidarez, Olentzerorenganako fedea aspaldi



Bira
Idurre Eskisabel

galdu zuen arren, sinesten zuela oraindik gurasoen magian; edo, akaso, gurasoengandik nahi zuena lortzeko boterean. Amorru negarretan lehertu zela mutikoa, eta okatu zela bera dela whatsappik gabeko bakarra kuadrillan: isekaz hartzen dutela.

Lagunak esan dit azpimarratzeko argudio pedagogikoak ibili dituztela seme-ari telefonoa ukatzeko, bai berarekin, bai lagunren gurasoekin; umeegi direla, kontsumismoa, intimitatea, dependentsia. Baina aitzakia baino ez dela, dirua dela egiazko arrazola: jendeak uste duen baino askoz ere larriago dabiltzala, kolpe handia jaso dutela negoziotan. Baina errazagoa zaiela semearekin sexuaz edo heriotzaz hitz egitea, diru premiaz, diru gabetiaz, porrotaz baino.

Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Zuzendariordea: Iñaki Petxarroman
Edizio arduraduna: Jose Anjel Alda
Argitaratzailea: Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera publizitatea
Lege gordailua: SS-0662/03
Batzorde parekidea: 0712184059

Egoitza nagusia: Martin Lugaide kultur parkea. Gudarien Etorbidea, 2/g. 20140 Andoain.
Telefonoa: (0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@bidera.eu
Harpidetza saila: (0034) 943-30 43 45

Date: 26/12/2013
Exemplaire: 3.260
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication: Martxelo Otamendi
Commission paritaire: 0712184059
Delegation Labourd: Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008
Gasteiz: Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.info
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45.13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 94-83 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

Txillardeggi liburutegiaz

Jakes Lafitte Ingeniaria

Donostiako liburutegiari Txillardeggi izena ematearen aurkako botoa kezagarria da, eta deabru zaharrak arrapiztu nahi dituela badirudi. Oposizio-ko alderdi espainolstek, naski, euren ezetza eman dute, Txillardeggi ETAKo eraikitzaile histori-koetatik bat zelakoan. Baina harrigarria da oraingo PSE kontra izatea, Udaletxeko Domini-ko emateko, dakidanez behintzat, ados zegoela oharturik, Txillardegiren baitan gizon politikoa baino, kultur gizona gehiago kontutan hartzen baituzten. Askoz harrigarriagoa da EAJren ezetza, zeren alderdi honek, abertzale izanik, euskal kulturaren alde hainbeste egin zuen gizon batek ohorezko toki bat sortu zen Donostia horretan ukan zezan ahalegindua beharko baitzuen. Bi iturburu politiko ukan ditzake EAJren jarrera horrek: ETA 1969 urtean EAJren barneko disidentzia batetik sortu izana, edo gaur alderdi espainolstek egiten dituzten presioen eraginda. Dena den, Txillardeggi hurbiletik ezagutu duten guztiak ohartu ziren mota guztietako abertzaleekin oinarrietan ados zegoela. Belaunaldi askotako militanteeekin harreman onak bazituen, puntu batzuetan oso osoki ados ez izan arren. Denboraldi batean irakas-letzat ukan nuen ber. ohartu nin-

tzen hark zuen euskal nazioari buruzko ikuspuntua hizkuntzari zegokiola, eta ez ikurren gurpe-nari, ezta ere euskararik gabeko sasi abertzaletasunari. «Euzko-tarren aitzakia harkiareen jarrera iruditzen zaidako», esaten zuen. Euskarari buruz egin zuen lan mardula aipagarria da, dudarik gabe: euskara batuaren oinarriak askorekin lan eginaz landa-tu zituen bere liburuetan (*Sustrai bira; Euskara batua zertan den; eta abar*). Jon Mirandezuberotarrarekin batera euskarazko prosa modernoa landatu zuen (hala nola, *Elsa Scheelen eta Peru Leartzako*). Euskarazko saiakera lanari hasiera on bat eman zion *Hurtaz eta hartaz* liburutxoa idatzi zuelarik (Goiz-tiri, 1967an). Euskarazko prentsan idatzi zutenaren arabera, erdaraz bezain trebe euskaraz idatzi zuen herriko eta nazioarte-ko gaien inguruan. Jon Miranderi aitziz zen bakarti intelektua-la, berak askotan azaltzen zuen legez, «herri gizona» baitzen.

ETA lau adarretako oldar abertzalea eraikitzean parte hartu ondoren, hortik atera zen 1967 urtean erakundeak hartu zuen jarrera marxista leninista-erengatik. Ezker abertzaleko mili-tante askorentzat nahiko arra-roa zen marxismoa eta leninismoaren aurkako jarrera hori. Nire ustez, Francois Fontan okzitaniar hertzaleak idatzi zuen bezala, Marx eta Leninek aliena-turik zeuden nazioen borroka teorian bakarrik kontutan har-tzen zutela, baina praktikan jokaera imperialistari ekiten zio-

Euskal Herriaren nazio borroka eta existentzia lurraldetasunean, historian eta hizkuntzan oinarritzen zituen, hain zuzen ere; Gerla Karlisten alde jartzea abertzaletasun inkontziente baten azalpena baino ez zitzaion

tela salatzen zuen Txillardegik. Euskal Herriaren nazio borroka eta existentzia lurraldetasunean, historian eta hizkuntzan oinarritzen zituen, hain zuzen ere; Gerla Karlistetan euskaldunek Karlisten alde jartzea abertzaletasun inkontziente baten azalpena baino ez zitzaion.

Frankismoaren denboretan, baita ondoren ere, ETA «kanpo-tik zuzenduriko» matxinadakeria baino ez zen. Espainia deseroka-tzeko komunismoak edo Ameri-ketako Estatu Batuek antolatuta. Azken hamar urteetan, aldiz, euskara eta Euskal Herriaren aldeko ekintza edo erakunde gehienak ETAREkiko lotura bat duelakoan, zapalkuntza badator. ETAK adar militarrez gainera, gizarte, politika eta kultura sail-ak bazituela ez dute agintariek onartu nahi. ETAREN indarketa-rekin dena lotu nahi dutela gero eta nabarmenago da, zoritzarrez. 1963 urtean Frantziako aginta-riek Txillardeggi kanporatu zute-larik, ETAREN borroka armatua ez zen hasi. Hegoaldera itzuli zenean, 1977 urtean bide politi-kan sartu zen, nazio eraikuntzari loturik. Joan den mendeko azken hamarkadan guduka armatua onartzen ez zuen Amairu alder-diareen antolakuntzan aritu zen. Gizon biolentoa izana beraz, ezin diezaioke leporatu abertzaleek, euskalzaileek, ezta ere ez-abertza-leek. Arestian aipaturiko hiru alderdi horiek beraz, hartutako jarrera berriki beharko lukete eta Donostiako Liburutegiari Txil-lardegi edo Larresoro izena eman.